

Zergatik ez?

RAMON ETXEZARRETA



ESPAINOLDU

egin nahi gaituztela esaten dutenek ez dute gezurrik esaten. Desespainoldu egin nahi gaituztela esaten dutenek ere ez. Bi iriziek dute arrazoi osoa eta bien artean dago egundo ahalako lehia. Beste batean dago lehia horretan zein eta zenbat diren benetan sartu nahi dutenak eta hori inporta ere ez zaienak jakitea. Garenak gara, eta garen bezalakoak.

Ez deritzot, ordea, desespainoltze guztiak euskalduntzeak direnik, espainoltze guztiak derrigorrean deseuskalduntzea izan behar ez duten bezalaxe. Arazoa, kiribiltzearen kiribiltze, gero eta korapilotsuago eta konponezinago bilakaraz dezakegu lasai lasai, hala ere, kalean oinetakoekin eta galtzekin ibiltzen jarraituko genuke eta kotxean ibiltzeari ez genioke ukorik egingo nahiz eta matrikula txapa guztietan 'SS' edo 'VI' marka eraman. Hezurretaraino sartua daukagu manikeoeria.

Urteak dira ikastolen borroka, behin betirako konponbide baten bidean, hasi zela, urteak eta urteak dira eredu zehatz-mehatz definitzeko denbora eduki dugula. Baina ez dakit harropuzkeria eta sineskeriaren pekatua ez ote dugun egin, iraun beharrak geure buruaren erreflexioa bultzatu beharrean etsaiarekiko amorrua piztea besterik ez ote duen egin.

Orain berriz izan ahal ez izanaren atarian gaude eta atari honetan zenbaitek joera numantinoaren aukera egiten du, hil lehenago etsairen eskuen ukitu bat jasan baino. Ez zait oso zuzena iruditzen. Oso onuragarria ikusten dut sare publikoa ikastolaz josia ikustea, beren indarra inork mantsotu ezinezkoa izango litzateke, eta ikastoletan euskararekiko jarrera 'ez hain sinpatikoa' dutenak etxean bizitzen sartzea. Denborak sendatzen du dena, benetan sendatzeko borondatea baldin badago.

Ogia eta gasna

JEAN LOUIS DAVANT



BADAKIGU

Europako hizkuntza gutiatsien aldeko karta ez duela izenpetu Frantziako gobernu

sozialistak. Berriki, sinadura horren alde agertu dira pertsonalitate batzuk, haietan Inchauspe ta Lamassaire, iparraldeko deputatuak. Hobe segur. Halere oroitzen gara horrelako xede onak loratzen ikusi ditugula beste bozka handi batzuen bezperan, eta gero Apirilako elurra bezala urtu zirela. Behin euskal kulturaren karta bat hitzeman zigun Giscard d'Estaing batek. Debaldetan. Berantago, duela hamabi urte, bilinguismoaren aldeko legegai bat aurkeztu zuten deputatu sozialistek, Le Pensec buru, eta sinatzaletan zegoen François Mitterrand, Errepublikako lehendakariagaia. Beti beha gaude. Eta zer erranik ez euskal departamenduaz, hori ere hitzeman baitzigun presidentegaiak.

Beraz ez gaitu gehiegi ilusitu behar orain eskuinetik datorkigun xaramelak. Beste buztanik ez ote duke suge horrek? Ogia baina handiago hitzemaiten digute gasna, baina mementoan ez dugu ogirik ere. Geroak erranen du laster pesimitegiak ote garen. Aintzinetik, alderantziz, inozentegiak izan baiginen.

DEIA

Korrika eta Rh linguistikoa

Herri euskaldunak —nik uste— dagoeneko bere ondorioak atera ditu. Lehenengoa, elkartu behar dugula, denon ahalegina beharrezkoa dela aurrera jarraitzeko. Bigarrena, euskararen alde egindako guztiak aldi berean euskaldunen arteko atxikimendua indartu egin behar duela. Osterantzean, hobe dela hori ez egitea, hain zuzen jarrera zentzuzko eta arduratsua besterik ez dena jarraituz. Erasokortasuna aurrez aurre ditugunentzat, horrelakorik badago behintzat. Etxekoentzat, berriz, txera eta jasankortasuna.

Egun, Euskadin, euskararen alde inoiz ez bezala lan egiten, borrokatzen ari da. Eraginkortasunez, gogoz. Erakundeen egunez eguneko lan isilean. Publikoena, pribatuena, elkarrekin bizitzen eta lan egiten, gizarte boluntarista eta dinamiko batek berezko dituen arazoak konpontzen ikasten ari baitira, beti ere helburu komunetan alde.

Zerbait aipatzeagatik, nik ez dut HABE eta AEKren arteko planteamendu antagonikoetan, elkar baztertzten dutenetan, sinesten. Biak beharrezkoak direla uste dut, eta biekiko atxikimendua sentitzen dut. Bestearekin borrokatzen ginen bitartean ho-

HEMEROTEKA



OROZ / DIARIO DE NAVARRA

rietako baten sorrerarekin zerikusi izanak nire mugak eta ahultasunak besterik ez du nabarmentzen.

Hamabi urte hauetan zer ez den egin behar ikasi dugu: elkarri eraso egitea. Nola jokatu behar den ikasten ari gara, bestelako aburuei utsiz hala behar denean, britainiar erara, eta iritziak —alda daitezkeenak— eskainiz beti mutaezinak diren uste osoak eman beharrean.

RAMON LABAIEN

LAVANGUARDIA

Europar batasuna, Frantziaren ondoren

Frantziako legegintz hauteskunde onorio politikoak ezin dira alderatu aurreko irailean herria zatitu zuen eta Europa erakitzeko prozesuaren gainean pe-

simismo laino bat zabaldu zuen erreferendumaren emaitzarekin. Baina ezin da, era berean, zerikusirik ez dutenik esan. Orduan, erreferenduma zela kausa gullistik banandu ziren bezala, orain beraietako bat lehen ministro ponpoxo dutela ere gauza bera gertatu da eta, aldi berean, beraien eta hauteskundeetarako ki-deen artean —Valery Giscard d'Estaing zentristak— zulo bat zabaldu da. Frantziako lehen ministro Edouard Balladur hautatzea bat dator, hasiera batean behintzat, Frantziaren ohizko jaidura europazalearekin. Hauteskunde kanpaina zehar Mitterrand lehendakariak ohartarazi zuen Frantziako lehen ministroa ezin zela Europaren kontrakoan lerroetan kokatu, kontserbadoreen eta zentristen arteko zatiketari buruzko aipamen argia eginez. Eta Balladur-en karreraren ezker ez du aukerarik ematen alde horretan kokatzeko. Inola ere ez. Aitzitik, bera ez da arazoa, baina berari eusten dion base politiko

heterogenotik etor daiteke.

Europari buruzko auzia ere, nahiz eta barne arazoan atetik izan, erabakigarria izan da frantziar hauteskundeetan. Edo, zehatzagoak izateko, Alemaniari buruzko auzia. Frantziako hautesleago, hainbeste europar bezala, irtenbide nazionala defenditzen dutenen eta, oso ertz argiak ez baditu ere, nazioz gairidiko etorkizun batean sinesten dutenen artean banatuta dago. Baina Frantziaren sektore euroseptikoek oso indar handia dute, orain neurri handi batean gullistak eta zentristen arteko koalizioari bere laguntza eman dioten nekazariak esate baterako. Zalan-tza, ordea, Gobernu berriak zein erantzun emango duen jakitean datza, Alemaniak Europar hainbat gaitan, hala nola nekazaritza arloan, protekzionismoan, hitz batez GATTen negoziazioan duen pisuaren eragin psikologikoaren pean hasi baita funtzionatzen.

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Presoekin elkartasuna

Arantzazun bildutako Kristauak, erreflexio eta otoitz gaubegian, gure elkartasuna adierazi nahi diegu preso (sozial nahiz politiko), deportatu eta exiliatuak eta beraien senideei. Nazaretoko Jesusen lekukoak, Jainkoaren Erreinuaren ezaugarri bezala, katibuei askatasuna, zapalduen askapena eta Jaunaren onezko-urtea, esan nahi duenarekin leialak izan nahi dugu eta horrela bada:

Estatu Espainiarreko eta Frantziarreko gartzela-sistemaren injustizia eta ustelkeria salatu egiten dugu, ezin presok, nahiz politikoa nahiz soziala izan, ezin bete bait du modu egokian bere zigorra, gartzelotako bizigaitasun baldintzak, eskakizun justoekiko arretarik eza eta giza eskubideen ukazioa kontutan hartuz gero.

Honenbestez, zera eskatzen dugu, preso

guztiei, bai politikoei eta bai sozialei, beraien estatutu eta eskubideak errespetatzea, horretarako beharrezko den gartzela-sistemaren erabateko burutuz. Eta bereziki honako hau, euskal preso politikoei bere defentsa eskubideak errespetatu ditzala eta bere abokatuak jarzpenik eduki ez dezaten.

Gure herriko Elizari, gu ere elizkide izanik, zera eskatzen diogu, gosez eta biluzik direnekin eta atzerriarrak direnekin batera Jesusen ezaugarri direnekin egiazko bitartekotza lana egin dezala. Elizaren ebanjelizatze lana azkenengoak eta zapalduenak direnen askapenetik hasten bait da.

Beste behin eskatzen dugu elkarrizketaren bidez urrats serioak eta eraginkorrak, berehala, eman daitezela gure gatazka politikoaren kausak konpon daitezten, guztiok ekidin nahi ditugun indarkeria desberdinen ondorio deitoragarri eta mingarriak amaituz.

Baieztu egiten dugu, gure Herriaren bakeak eta Herri guztien bakeak beharrezko duela preso politiko eta sozialen askapena. Gizaseme bakar bat preso dagoen bitartean herria ere preso dago: izan ere, libre ala bakean senti al daiteke ama ala aita bat bere semea/alabea gartzelan dagoen bitartean?


Herri honengan, Euskal Herriarengan, sinesten dugulako, munduko botoretsuek zapalduetako herri guztien aldeko aukera egiten dugu eta beraien askapenaren bitetik igarotzen dela askatasunaren lorpen bete eta mundu zuzen eta solidarioaren ezarpena.

EUSKAL HERRIKO KRISTAU ELKARTEAK

APAIZEN KOORDINAKUNDEA

Arantzazu (Gipuzkoa)

GAIA JARRITA



Clint Eastwood

Beti hain harro agertzen zaigu adoretzu bezain kirten, Clint Eastwoodentzat alperrik dira mila hitz edo azalpen; lau balarekin sei gizon hiltzen ere ikusi nuen baten, holakoari ea Oscarra zeinek ez dion ematen.

HARITZ LOPATEGI

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



OJDren IKUSKATZEA BIDERATUA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: INAKI URIA

Zuzendariordea: LUZIEEN ETXEHARRRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20010 Donostia / ☎: 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila, / 64105 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11